

Abiatu da [Glycobasque 5](#), urtero glikoziatiari buruz egiten dugun nazioarteko topaketaren 5. edizioa

Gaur eta bihar, glikoziatiari buruzko nazioarteko urteroko 5. topaketa egingo dugu. CIC biomaGUNEko (Donostia) [Glikoteknologia](#) taldeak (Niels Reichardt) eta CIC bioGUNEko (Derio) [Glikobiologia Kimikoa](#) taldeak (Jesús Jiménez-Barbero) antolatu dute (BRTAko ikerketa-zentroak dira biak). Glikoziatia gero eta garrantzitsuagoa da medikamentuen garapenaren, terapia genikoaren, medikuntza birsortzailearen eta gaixotasunen diagnostikoaren arlo askotan, eta aukera handiak eskaintzen ditu oinarritzko ikerketarako eta ikerketa translazionalerako.

Azaroaren 18an eta 19an Gipuzkoako Zientzia Parkeko auditorioan ospatzen ari garen sinposioan (Donostia), hainbat mintegi emango dituzte glikobiologian, immunologian eta karbohidratoen kimikan aditu nagusiek; bestalde, minbiziaren glikobiologian, glikanoen sintesian, terapia immunologikoan, glikokonjokatuak darabiltzaten txertoen diseinuan eta karbohidratoen eta proteinen arteko interakzioen analisisian esperientzia duten parte-hartzaileen ikerketa aurreratuenak erakutsiko dira.

Sinposioan lantzen ari diren arlo nagusien artean, aipatzekoak dira minbiziarekin eta gaixotasun infekziosoekin lotutako glikoimmunologia, karbohidrato-lektina interakzioak analizatzeko tresnak eta metodoak, glikomimetikoen garapena eta karbohidratoen sintesirako metodo aurreratuak.

Mundu mailako zientzialariek hartuko dute parte, eta, topaketako hizlari nagusi gisa, glikoziatiaren arloan egiten ari diren beren lan berritzaileak aurkeztuko dituzte Glycobasque 5 topaketan:

- **Henrik Clausen**, Kopenhageko Unibertsitatea, Danimarka: **“A Genetic Dissection Approach to Functional Glycomics”**
- **Geert-Jan Boons**, Utrechteko Unibertsitatea, Herbehereak: **“Chemo-enzymatic synthesis to probe host-guest interactions”**
- **M.G. Finn**, Georgia Tech, AEB: **“Generation and Use of High-Affinity Anti-Glycan Antibodies”**
- **Sabine Flitsch**, Manchesterreko Unibertsitatea, Erresuma Batua: **“Enzymatic tools for glycoconjugation”**